

"ELKARREKIN LAN EGITEKO PREST GAUDE"

Badar El Hijra (Tetuan, 1981), Donostiako Herrera auzoko meskitako imana.

Zer balorazio egiten duzu Hotzaldian egindako jardunaldiari buruz?


Caritasek, beti, lan handia egiten du Hotzaldiko gazteekin, eta, oro har, pertsona zaurgarriak duintasunez bizi daitezten. Ramadanaren amaieran Xabier Andonegirekin batera parte hartu nuen ekitaldia, elkarrengana hurbildu, eta elkar ezagutzeko ekitaldia izan zen.

Gazteekin hitz egin nuen, eta egoitzako hezitzaileek egindako ahalegina eta eskertza aitortzen dute. Beraien iritziz, Hotzaldin igarotako Ramadan hau, hemen daudenetik onena izan da.

Ekitaldian, Caritaseko, hezitzaile, etab-en eskutik, gure meskitarekiko eskerrak hitzak jaso nituen Hotzaldirekin izandako lankidetzagatik. Jardunaldi bikaina izan zen.

Gazteak bi hilabete baino gehiago egon dira egoitzan konfinaturik. Zer esan dizute bizitzea egokitu zaien esperientziari buruz?

Oso pozik daude bizikidetzarekin. Batez ere, nola zaindu dituzten hezitzaileak eta egoitzako arduradunak, eta Hotzaldian bizi duten familia-giroagatik. Guztiok bezala, arau batzuk errespetatu behar izan dituzte, baina balorazio orokorra oso positiboa da.



Covid 19aren aurretik, Hotzaldiko gazteek kale-egoeran zeuden. Zer etorkizun izango dutelakoan zaude deseskaladan murgilduta gauden une honetan? Kalera itzultzeko itzala atzetik sumatzen al dute?

Gutako edozeinek, hemen bizitzen jarri, eta dutxatu, jan eta lo lasai egiteko leku bat izatearekin amesten du. Une honetan, oso zaila da eurei antzeko etorkizunaz hitz egitea. Hotzalditik atera ondoren aurrera egiten laguntzeko ari gara lanean. Ea horrela den. Lanean jarraitu behar da.

Baien ibilbidean, puntu garrantzitsu bat, hizkuntza da, bai gaztelania, eta bai euskara. Horiek ikastera animatzen zaituztet, bizikidetzaren bultzatzeko eta prestakuntza-ikastaroak egiteko.

"GAZTEEKIN HITZ EGIN NUEN, ETA (HOTZALDI) EGOITZAKO HEZITZAILEEK EGINDAKO AHALEGINA ETA ESKERTZA AITORTZEN DUTE"

Nire ustez, Hotzaldi bezalako egoitzek, beharrak dituzten pertsonei zuzenduak, irekita egon behar dute etorkizun oparoagoa izaten laguntzen baitie.

Etxegabetasunari aurre egiteko azken aukeretariko baten aurrean al gaude?

Une garrantzitsua da. Bi edo hiru hilabete hauetan Koronabirusaren ondorioz bizi izan dugunaren ondoren, orain elkartuta borrokatzen ez badugu, kalean dauden pertsonen alde lan egiten ez badugu, uste dut ez dugula ezer ulertu bizi izan dugun egoeraz.

Esparru horretan lan egiten duten erakundeek, erakundeekin elkarlanean, gazte hauek etorkizuna izan dezaten borrokatu behar dugu. Bizi diren gizarteari ekarpenak egiten dizkioten herritarrek izan daitezten. Badugu lana dugu aurretik.

Caritasek, adibidez, "talka-plan" baten aldeko apustua egin du, krisi honek errefuxiatuei eta migratzaileei eragiten dizkien ondorioak ahal den neurrian arintzeko.

Pertsonei beren egoera, etab. erregularizatzen lagunduko dien edozein proposamenen alde nago. Caritasen helburuetako bat, jendeari laguntzea da, eta beti saiatu izan da horretan. Laguntzeaz gain elkarrekin lan egiteko prest gaude.

Bi erlijioak eskutik helduta joan al daitezke arazo sozialei irtenbideak bilatzeko?

Covid 19an bizitzea tokatu zaigun egoera, aukera bat da gerturatzeko, lankidetzan aritzeko eta konponbideak bilatzeko elkarrekin lan egiteko. Kristautasuna eta islama, espiritualki ez ezik, paraleloan joan behar dugu gizarte-gaiak konpontzen laguntzeko.



***"HOTZALDI BEZALAKO
EGOITZEK, BEHARRAK DITUZTEN
PERTSONEI ZUZENDUAK, IREKITA
EGON BEHAR DUTE ETORKIZUN
OPAROAGOA IZATEN
LAGUNTZEN BAITIE"***